

... eta kitto!

Deba bailarako atmosfera saneatzeko planaren II. Fasea Hastear


Sarritan izan gara kexu erasotzen gaituen ingurugiro honen eraginez: batzutan hautsa dela, beste batzutan keiak eta askotan zer ez dakigula. Jendea nahiko kezkatzen duen gai bat izan da eta horretaz konturaturik, administrazioak ere zenbait neurri hartu behar direlaren premiaz ohartu da. Gai honetaz hain zuzen, Mankomunitatea saiatu da igaztik hona gerorako irtenbideen bila, Ingurugiroko Kontselaritzako ordekoak enpresa batekin kontratatu duen lana medio.

Egun hauetan martxan ipinikoden fasean, meteorologi estudio baten bidez aire multzoen mugimendua ezagutuko da; honek paregabeko aukera ematen digu hiritarrak arnasten duen kutsadura tasari buruz informazio on bat biltzeko. Honekin batera, ekipoen lehenengo maila kokatuta geratuko da, Bailara honetan gertatzen denaren datuak ematen jarraituko dutelarik. Lan hau aurrera atera behar duen enpresa, Environment & Systems, Ingurugiroko Kontselaritzako ordekoak kontratatutakoa da eta "nahiz eta hemengo egoera ez izan, gertu dauzkagun beste zona batzuekin aldekaturik, txarragoa, ba lortu dugu ekipo hauek hona ekartzea" dio Deba Beheko Mankomunitateko gerenteak, J.I. Escala.

Orain arte, eta batez ere igaz egindako lanetan, airera jaurtitako poluzioa kontabilizatu da: alde batetik, foko fijo edo aldaezinezkoa (industriak, tximiniak, etab.) eta bestetik mugikor edo aldakorrenak (trafikoa, berogailuak, etab.). Honez gainera, foko jaurtitzailaren teknika nahiz erabilera aldetik dauden egoerak xedatu, kutsaduraren eraginak gutxitzeko hauen aldaketak ahalbideratu eta, azken finean, foko aldaezinak non dauden kokatu. Guzti honen ardura Ingurugiroko Zuzendaritza Orokorrek labein-Tekniker antzerako teknologiko-zentroagaitz utzi zuen.

■ Aire multzoen mugimendua aztertuko da


Oraingo honetan, aire multzoak



Orain dela 2 urte ateratako imaginak kutsaduraren arrazoi bat azaltzen digu.

nola jokatzen duten izango da gaiaren mamia, ez bait dira ahaztu behar neguan eta udaren ezberdintasunak arlo honetan. Egunean zehar ere aldeak nabari daitezke, batzutan itsasorantz, besteetan barnerantz, brisa edo haizearen jokua arbera. Askotan mendi hegaletatik

Argazkiaren erdikaldean ikus daiteke aire hotzaren multzoen jarioaren nahasketa.



■ Airearen kalitatea, metereologia, industri, etxe eta kaleko emisioak eta biztanle-estutasuna edo densitatea dira ikutzen diren puntu garrantzitsuenak.

jausten dira; beste askotan, aldiz, igo. Badaude ere bare-aldiak eta nahaste-borrasteak.

Bestalde, erabiltzen diren parametro kutsatzaileak hauek dira: partikulak, sulbur-anhidrido (SO₂), nitrogeno eta karbonozko oxidoak (NO eta CO) eta elkartzeko lurringarri organikoak. Kutsadura esparruan, ez da ahaztu behar kanpotik honaino ailegatzen zaiguna. Hemen, adibidez, Leonen lantzen den lighthoaren" aztarnak jaso-

teak ere badu zerikusia guzti honetan. Hemen, konturatuz gero, gehienetan argi zabalean aireak Eibartik Elgoibarrera doaz, gauean honerantz datozen bitartean. Berdina gertatzen da Soralue eta Bergara artean. Aldi berean, negualdian aranan behera doazen haize jarioak nagusitzen diren heinean, uztailean, bestalde, mendihagaletako haizeak eta brisa ematuak dira gehienago barneratzeko bidean. Egunez brisak ikusten badira bakarrik, gauz barealdiak

zitzen ditugu; Terueletik ere heltzen zaizkigu.

Bizi garen arana hain hestua iz-

dira nagusi, haize-arrosak erakusten digutenez.

■ Bailara bat osorik tratatzea egokiena

"Bailara osoa hartzea ez da kasualitatea, ikusten badugu modu batean aireak urak bezala jokatzen duela, Debakoa bezalakoa diren aranean, hain estu eta sakonak izaki*. Hau onartu behar dugu zentzu batean: beste bailarako airearekin dagoen erlazioa oso txikia dela eta ez dutela ia zerikusirik. Horregatik, bada, ekintza honek hartzen ditu Aramaiotik itsasalderaino (Mutriku) eta Elgeta eta Mallabia bezalako puntutik Itziar eta Antzuolaraino" esaten digu J.I. Escalak.

Hemengo beste berezitasun bezala aipa daiteke ez dagoela "tximini altu"rik. Airera jaurtitzen diren emisioak behean ematen dira gehienbat. Guzti honekin emisioen zaintze eta kontrolaketa egitearekin batera, airean dauden partikularen kutsadura porzentaia zenbatuz. Horrekin batera, trafiko mailan dentsitate handien duten lekuetan beraun (plomo) analisisa egin daitekelarik. Arreta ipintzen da ere erretze edo konbustioa ezarketaren emisioei.

Fase honen amaierarekin eta Plan honen helburu bezala Zaintze Sare baten ezarketara hel gintezke, horrela behar den premiaz ekiteko kutsadura larri bateko episodiora nabaritzen dugunean, herriak arnasten duen airearen legezko mugak gainditzen direnean.

ITURRI ONETIK

Pui Garcia, 27 urte eta Bergarakoa. Udaletxeko Ingurugiroko Ordezko Teknikaria, apiriletik hona. Ikasketak: Geografia eta Ingurugiro eta Lurralde-Antolaketa Masterra



Eibarko airean dagoen kutsadura kopurua beste lekuetan baino altuagoa al da? Zeintzu dira arazo nagusienak?

Airearena baino askoz ere garrantzitsuagoak isurki industrialak eta zaratarrena izango liriteke. Nahiz eta estudioak oraindik egin gabe egon, ikusten da, ba Durangoko egoerarekin konparatuz eta abar ez duela zerikusirik. Hemen lantegiak airera jaurtitzen dutenak ez du suposatzen arazo hain larriak. Gertatzen dena da herriaren estutasunak, dauzkagun aldapak, kotxeen arazoa, ba kale batzuk nahiko oxigenazio faltan uztea, Arragueta kalea kasuko. Bestalde, airean dauden partikulak ere, arazo topografikoak direla eta, hemen gertatzen dute. Sortaldeko haizeak ari direnez, normalean keak eta joaten dira, nahiz eta batzutan "inversión térmica" dela medio hemen geratu.

Denunzia aldetik, ba omen dira, ez asko, hiru edo lau, baina betikoak izatez aparte, azkenean estankatuak geratzen dira, gauza handirik ez bait daiteke egin: dirua dela eta ez dela, gehienetan. Auzoari begira, arazo gehienak planteatzen dituztenak Bista Eder eta Iparragirre bezalakoak dira, batez ere produkzio orduetan.

... eta gainera

- Kodize berezia agertu (2. orrian)
- Eibartarrak eta soldaduzka (3. orrian)
- Elkarrizketak: Amaña Gaztea, Eduardo Artamendi, Rikardo Bastida.
- Farmaziak eta gaua (8. orrian)

ETA KITTO INKESTA

Mesedez eta faborez, 6. orrialdean daukagun inkesta betetzeko erregua egiten dizugu irakurle. Urte bi pasatu dira hasi ginenetik eta zure eritzia jakitea beharrezkoa zaigu. Iaz egin genuen inkestan bezala erantzun asko espero ditugu. Mila esker.

NEURTEK

S. A.

AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA
KONTROLATZEKO TRESNAK

Txaltxa Zelai 1. Tel: 702079. Faxa: 700212 EIBAR

FIAT

DEBA ALDEKO BANATZAILEA

Tel: 12 10 00
12 10 19

HOGEL, S.A.

Bittor Sarasketa 7.

EIBAR



BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA

KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/ Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

IRAKURLEAREN TXOKOA.

Alfa ikastolako obrak

1991eko Urriak 15a
Kaixo zuzendari jauna:
Ni Gaizka naiz 10 urtetako mutiko bat. Proposatuta nahi dizuedan gaia, "ALFA"-ko ikastolei buruz da. Bukatu zirenean edo ia bukatuak zeudenean udako oporrak, esan ziguten "ALFA"-ko ikastolak obretan zeudela beraien egoera txarragaitik. Mailetan separatu gintuzten: 1. eta 2. mailakoak "Jacinto Olabera" eraman zituzten. Nire anaia eta bere gela 3. mailakoak zirela "Zezenbidera" eraman zituzten. 4. 6. 7. eta 8. mailakoak "Itziora" joan ziren eta ni eta nire gela "Marquescua"
"Marquescua" deskribituko dizuet orain:
"Marquescua" bere garaian jauregi eder eta polit bat zen orain berriz etxe zahar eta hotz bat besterik ez da. Ni Eibarko alkatea izango banintz hondamendi deklaratuko nukeen "Marquescua" baina momentu bat denez... udaletxeako ez dira ausartzen horrelakorik egiten.
Honez gain 2 arazo daude:
1. Ez dugula materialik: Ez daukagu kolorezko klarioiak, kartulinak ere ez, boligrafoak etab.
2. Gainera gaizki gaudela "Marquescua" eta ez dugula materialik esaten digute "Alfara" ze egunetan goazen baina oraindik hemen gaude.
Nire ustez oso gaizki egina dago.

ARRAZOIAK

- 1.- Uda guztia edukita lanak hasteko eta ez hastea.
- 2.- Gurasoei berandu esatea berria.
- 3.- Material eta jolasleku txarrak.

Badakizu orain nire eritsia. Nolako da zurea?
Beno agur esateko ordua iritzi zait espero dezagun arazo hau laister konpontzea.
AGUR!!

Gaizka Alberdi Albizuri

Animalien ehiza

Kaixo zuzendari jauna:
Hamar urteko neskatxa bat naiz, eta eskutitz hau idazten dizut, gai hau, asko axola zaidalako. Uste dut, gai hau, munduko denei axola beharko zitzaion gai bat dela.
Nire gaia, ez da, ia zergatik hiltzen ditugun animaliak gero jateko. Ez nire gaia, jake edo zamarrak egiteko animaliak hiltzen dituzten ehiztariena da, edo elefanteak hiltzen dituzten ehiztariena, bere bolizko betaginak bereganatzeko. Baita, soilik, insektuak hiltzen dituztenak, iguana edo traba egiten dietelako.
Bizitzaren utzi behar zaie. Ez al daukate bizitzak? Bai, bai daukate, guk bezala.
Moeta asko, desagertzen doaz: zenbat elefante geratzen dira? eta zenbat hartz panda? eta, zenbat bale?
Ezin gintezke bizi, artilezko jertzeekin? esan nahi dut, larruzko zamarrarik gabe. Ongi dago, batzu hiltzea, izadiaren oreka mantentzeko.
Ez nago, ezta, ados, txoriak hiltzen dituztenekin zaletasunaregaitik.
Zer esango zenien ehiztari horiei? nire ustez: "ez zituztela hainbeste animalia hil behar. Eta konturatzeko, animaliek ere, bizia daukatela pertsonak bezala. Izadikoak direla, eta ez zituztela zoetan sartu behar, askatasunean utzi baizik".
Horretarako denok lagundu behar dugu, ez dago erraza eta konturatu egin behar gara baita, animaliek asko.

Agur zuzendari jauna,
eta espero dut
gai hau axolatzeari.

Naiara Alberdi


Liburuen aurkezpenak

Ramon Sarasuak laister argitara emango duen "Eibarko Musika eta Musikoak" liburuaren lehendabiziko orrialdeetan, ustez aspaldian desagerturiko kodizearen berri emango digu. Gasteizen 1928. urtean egindako "Eliza Musikaren Kongresoan", XIII edo XIV mendearen hasierako Eibarko kodizearen, orrialde asko eta larrifinean egindako balore handiko esku-izkribu haren aipamena egin zen. Mugikak berak ere, Monografiaren 130. orrialdean horixe bera dakar. Azkenik, **Juan San Martinek** RSBAParen Buletinean egindako artikuluan, San Andres Eleizan orrialde bakarra aurkitu eta bertan gordeta utzi zuela adierazi zuen.

Sarasua jaunak bere liburua egiterakoan egindako ikerketan, Udalaren artxiboan 1771. urteko Ordenantzek kanpokaldeko azaltzat kodize bat dutela frogatu du. Oraindik adituek ez dute beraien eritzia eman eta hor dago kodize zahar hori nork ikertu zai.

Apirilaren 13an, Errepublika aldarrikapen egunaren bezperan, **Toribio Etxebarriak** eta **Indalecio Prieto** bilbotar sozialista ospetsuak 1941eko uztailetik 1946ko abendura bitartean elkar-gurutzatutako karta guztiak biltzen dituen liburua aurkeztuko da. **T. Etxebarriaren** alabek utzi zituzten karta ezezagun horiek Udalaren esku, eta Ego Ibarra Batzordeak, **Juan San Martinen** aholkuei jarraiki, argitara emateko erabakia hartu zuen. **J.P. Fusi** historiagilearen hitzaurreak orduko kontestua azalpena egiten du. Karta horiek, **Toribio** Caracasen eta **Prieto** Mexico-n zeuden bitartean eginak dira eta lerroz-lerro bien arteko hartu-eman estua agerian gelditzen da; maila politikoan, pentsakera aldetik, garai

hartako bi gizon haien humanismoa erakusteaz bat, urte haietako historian zeresan eta zeregin handia izan zutenen aipamen geragabeak,



autokritika zintzoa darama. Ikertzaile eta historiagileentzat interes handiko liburu-agiri hori, herritar guztien oroimenerako derrigorrezko irakurketa bilakatuko da.

Bestalde, hurrengo hilean, maiatzaren 17an hain zuzen, **Ramon Sarasuaren** "Eibarko Musika eta Musikoak" liburua aurkeztuko da. Oraingo honek, musika munduan esateko asko daukaten **J. Bello Portu** eta **J.M. Sagarnaren** hitzaurreak eramango ditu. Sarasuak, XV mendetik hona Eibarren izandako musiko guztien bilduma kronologiko zahatza egin du. Horrekin batera, interes handikoak diren zenbait pasadizu kontatu eta Eibarren izandako koru, banda eta musika-talde guztien aipamenak eta nondik-norakoak zehaztu. Inoiz han-hemenka publikatu izan dira horri buruzko idatzi solteak baina inork ez du dena jaso **Ramon Sarasuak** egin duen bezala.

Emakumearen udal bulegoa antolatuta. Martxoaren 8ko Ekintzak

Martxoak 1-15

Erakusketa: "Emakumea eta kirola"
Tokia: Udaletxe Kultur Aretoa
Erakusketa hau Emakunde eskekin izan da, eta emakumeak kirol arloan izandako hasierako gorabeherak agertzen dira bertan. Gai honi buruz bideo bat ere ikus ahal izango dugu.



Martxoak 4

Antzerkia: "Hacia las sombras verdes"
Teatro Nuevo antzerki taldea. madríl.
Aktorea: Socorro ANADON
Tokia: Unibertsitate Laborala.
Ordua: gaueko 8'30retan.
Unibertsitate Laboralak antolatutako antzerki jardunaldiak batera. Gaia: Bizitza datorren heinean onartzen duen emakume baten istorioa da; baina bere denbora baloratu eta bera den bezala estimatzea eskatzen du.

Martxoak 8

8.000 egutegiren banaketa non emakumearen lan-eskubideak agertzen diren; amatasun, emakumearen egoera eta laneko eraso sexualari buruzkoak.

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta **IKUSONIK**ek oparitutako duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA " ...Eta Kitto Sariketa"

23. Aleko sariketaren erantzuna "Bidebarrieta kalean dagoen eta Arikixako zubira ematen duen etxearen fatxada" zen **SARITUA**: LIDE GONZALEZ VENTURA, Bidebarrieta kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Martxoaren 15a baino lehen bidali behar dira erantzunak. **SORTE ON!!!**

DISKA SALDUENAK ABENDUAN

EUSKARAZ

- "Ez da posible" Ruper Ordorika
- "Negu gorriak" Negu gorriak
- "Juergasmoan" Tapia eta Leturia
- "Zu zeu" Gontzal Mendibil
- "Mikel Laboaren kantak" Txerokee


ERDERAZ

- "Senderos de traición" Héroes del silencio
- "The very best" Elton John
- "MCMXC a.d." Enigma
- "The razors edge" ACDC
- "Bachata rosa" J.L. Guerra y 4.40

antzerki-jardunaldiak:

EGITARAUA

EGUNA	ORDUA	PARTE HARTZEN DU	ANTZESTEN DU
Otsa.21	20,30	Karraka	Linterna Mágica
Otsa.22	20,30	John Lee	Fool on a shoestring
Otsa.23	20,30	Produc. Udaberri	Neska Jolasak
Otsa.25	20,30	Jonathan Kay	Jonthan en Directo
Otsa.26	20,30	Gambito de Reina	Juego de Reinas
Otsa.27	11,00	Teatro Gasteiz	El Bosque Fantástico
Otsa.27	15,00	Gasteiz Antzerkia	Baso Miresgarria
Otsa.28	20,30	Teatro de la Bohemia	Mambo
Mart.1	20,30	Malevaje	Malevaje Envidia
Mart.4	20,30	Teatro Nuevo	Hacia las sombras verdes
Mart.7	20,30	Trasposos Danza	Iendo
Mart.11	20,30	Narruzko Zezen	Viva el Duque nuestro Dueño
Mart.12	19,30	Las Virtudes	Gaia: Batbatekotasuna "Virtud o licencia"
Mart.13	20,30	Beseren 1	Jacques eta Nagusia
Mart.14	20,30	Sindicat del Riure	Comedia de un acto obsceno
Mart.15	20,30	Chevere	Río Bravo





HARTZAREN
KOBATIK

“EUSKAÑOL”

Euskal dialektologia mundu beneran aberats eta zabala dugu. Gure hizkuntzan hainbat euskalki bereiz dezakegu, eskualde ezberdinen arabera: gipuzkera, bizkaiera, lapurtera... gure herriaren kulturaren adierazgarriak dira, zalantzarik gabe. Orain dela urte batzu, “linguaenavarorum”-en sakabanatzea zuzentzeko asmoz edo, euskara batua sortu zen, euskalki guztiak hizkuntz standartzatu batean batzeko. Gure inguruan kokatzen diren hizkuntz guztiak, bere sasoiari, bartutak erabaki hau esames eta eztabaida franko sortu zen gure artean; batzuk kontra beste batzuk alde, eta gehienak jaramonik ez.

Gure txoko honetan ez dugu parte hartuko horren eztabaida latz eta burutsuan, hori ez baita gure betebeharrak. Baina, Euskararen inguruan gertatutako aldakuntza haundi baten seinaleak haundiak direnez, arlo hau jorratu behar. nahiz eta jende asko konturatu ez, gure hizkuntza iraultza izugarri baten arian aurkitzen da: euskalki guztiz berri baten jaiotzaren aurrean aurkitzen gara, lagunak.

Euskalki berri hau gure kaleak apaintzen-kakazten dituzten karteetan topa dezakegu bereziki (Euskara gure kaleetan hain gutxitan entzuten baita) eta egundoko aurrerapena izan daitekela deritzot, integrazio linguistikaren arloan behintzen Bestek beste, euskalki posmoderno hau askoz argiagoa da gure ohizko Euskara zaharra baino; gauzak horrela, “praktikatu deserzioa”, “insumisioa” edota “huelga jenerala” dakarten kartelak agertzen dira nonahi. Bazen ordua, bai.

Euskaraz mintzatzen ez direnen aitzakirik nagusien gure hizkuntzaren zailtasunean izan du gakoia ia beti. “Euskañol” berri honen bitartez, ordea, bertan behera botako ditugu Euskararen ikasketaren kontra jarzen diren oztopoak. Nork ez du ikasiko, borondate apur bat jarri ezker, espainoetik hain gertu dagoen hizkuntza? Horrela, baita Bandrés, Txema Montero edo Benegas Arrapalada euskaldungo ditugu. Gure politikari abertzaleen poza! Eta, zer esanik ez, gure inguruan mugitzen diren hainbeste sasi-abertzalaren zoramena!

Dena den, eta ia beti bezala, linguistikaren arloan agertutako aurrerakuntza honen kasuan Eibar izan dugu, hurrengo ere, Euskal-herrian aitzindari. Zenbat barre ez ote dute egin gure inguruko herrietan eibartarrak “kaballua” edo “bentania” esaten zutelako “zaldia” eta “lehioa”-ren ordez! Orain, berriz, akademia batean joko dute “koiné” hau ikasteko.

Eibarko 62 gazte objetore deklaratu dira aurten

Urtero 100 “kinto” inguru joaten dira soldaduzkara

Espainiar konstituzioak dioenez, gizonezko guztiak bete behar dituzte beren betebeharrak militarrek; zorioneko soldaduzka. Batzuetan estatuak esijitu dezakeen zerbitzu bat, besteentzat bere kontzientziaren aurka doan inposizio bat, eta gehiengo haundi batentzat urte oso bat alpergaltzeko era nazkantea, bere bizitza osoko garairik garrantzitsuean.

Dena den, gustorago edo indarrean, makina bat eibartarrek soldaduzka egin dute, betetzen dira, edota aurki kunplitu dute. Erreklutamenduaren makinak ez du etenik, eta horrela askaziak bata bestearen atzetik pasatzen dira Espainia osoko koartelatik. Azkenengo urteetan soldaduzkaren aurkako jarrera hedatzen ari da eta, honen ondorio bezala, kontzientzia eragozpenaren aitzakiz uniformeak jazeari uko egiten diotenen kopurua gero eta gehiago dira. Batzuk urrenago jotzen dute eta heuren burua “insumisio”-tzat kontsideratzen dute.

■ 1991ko kinta

Aurten, 482 gazte sartu dira Eibarraren erreklutamendu zerbitzuaren makinan. Dena den, eta adina kontutuan hartuz, bakarrik 39 inkorporatuko dira 1992ko errenplazo ezberdinetan, kopuru haundi batek luzapena eskatu bait du, ikasketak direla eta. Lehengo errenplazoko gazte asko, bere luzapenak bukatu eta gero, inkorporatuko dira. Guztira, ehun inguru, urte guzietako joerari jarraituz.

Soldaduzka egiteko, autoritate militarren ustetan, sasoiari egon behar dira gazteak. Beraz, baldintza fisiko batzuk betetzen ez dituztenak ez dira gai zerbitzu militarra egiteko, libre geratuz. Aurtengo kintan, 62 gazte bata zein beste gaisotasunak alegatu dituzte, soldaduzka ez egiteko asmoz. Kasu hauetan, ohi bezala, benetako gaisoak eta amarruen bidez libratzea

nahi dutenak nahasten dira.

■ Kontzientzi arazoak

Gaur arte, soldaduzka egitea gauza “normal” bat bezala ikusia izan bada ere, aurkako jarrerak gero eta ugariagoak dira. Gazte askorentzat, militar moduan aritzeak kontzientzi arazo latzak sotzen ditu. Beraz, soldaduzka ez egitea erreindikatzen dute. Legeak dioenez, objektoretzat hartua izaten den gazteak zerbitzu sozial bat egin beharko du soldaduzkaren ordez. Azken kalkuloen arabera, Euskal-Herriko gazteen laurdenak objetore kontsideratzea eskatu du. Portzentaia hau munduko altuena da.

1991an Eibarko 62 gazte eskatu zuten objetore bezala hartzea autoritate militarrei, Gipuzkoa osoan 796 izanik garai berberan Objektoreen kopurua gero eta haundiagoa dela argi geratzen da 1990 arte Gipuzkoan azaldutako objetoreak mila inguru zirela kontutan hartzen badugu. Urte bakiar batean, zifra hori dia doblatu egin da.

“Ez dut nahi armarik, ezta entrenamendu militarrik jasotzea ere”, dio Eibarko objetore batek. “Arma eta biolentzia gauza guztiz zentzugabeak direla deritzot. Ez nago prest militarismoari laguntzeko, horregatik kontzientzia eragozpena erabili dute nere desadostasuna agertzeko”

■ Insumisioak

Batzurentzat, kontzientzi objektioa ez da nahikoa, sistema eraginkorra erabiltzen dute bere jarrera antimilitarista agertzeko: insumisioa. Postura honetan, objektioak beste zerbitzu sozialik egiteko prest ez daudelako. Gazte hauen ustetan estatuak ez du eskubiderik inongo zerbitzura behartzeko, ez militarra ezta zibila ere.

Kontzientzi eragozpena, nahiz eta arazo praktikoa haundiak planteiatu

“Bizitza lau egun dira, eta beste bat soldadutzan”, dio esatera zahar batek. Ez zaio arrazoirik falta, gizonezkoek dagokionez behintzat, emakumeak “betebehar konstituzional” hontatik salbu bait daude. Dena den, aurten 482 gazte eibartar sartu dira erreklutamendu militarren makinan. Hauetatik, 39 hurrengo urteko deialdietan koartelertuko dira, inongo luzapen edo errebisio medikorik eskatu gabe, gainerako kideak bezala. Errenplazo guztiak hartuta, urtero 100 eibartar joaten dira soldadutzara, nahiz eta kontzientzia eragozpena eta, azken bolaran, insumisioa gero eta zabaldago egon, gazteen artean soldaduzkaren kontrako jarrera gero eta hedatuagoa dagoela agerian jarritz. Aurten, 62 gazte eibartarrek bere burua objektoretzat jo dute.

Gobernuari, guztiz legearen barruan kokatzen da. Insumisioa, al-diz, guztiz ilegala da, oraingoz behintzat. Orain dela gutxi, Albaceteko insumisio batzuek kartzela zigorrak jaso dituzte beren jarrera menderakaitzari uko ez egiteagatik.

Dena den, kartzelaren arriskua insumisioen planetan sartzen da

“Prest gaude kartzelara joateko, nahiz eta gustoko gauza ez izan”, diote insumisioaren aldeko talde baten partaideek, “baina espetxeak insumisioz betetzen badituzte, azkenean gizarteak egundoko presioa eragingo du Gobernuarengan gure jarreraren onartzeko”. Itxuraz, pazifistek badute beren arma, nahiz eta, zorionez, hauek tirorik ez bota.



AURTEN DOAZENAK (ezer alegatu gabe)	LIBRATU DIRENAK	LUZAPENA ESKATU DUTENAK	OBJETOREAK	EIBARRIN JAIKO ETA INGURUKO HERRIETAKOAK	GUZTIRA
39	62	100	62	212	482

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tel: 11 00 70


S.C.R. ARRATE
Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmantak
Etor hadi
“KULTURALERA”

MUEBLES
VICTOR

Usti. Behea. 23

Tpua. 70 09 39

E.I.B.A.R.



EGILEA: Jose Luis Calleja "EL CORREO UTZITA"

Amaña gaztea: Emakumeen erizpide bakarria.

Orain dela asko sortutako taldea da; hala eta guztiz ere, bere partaideak oso gazteak dira. Froga bezala, Josune Sagardui dugu. Denda baten lanean diharduen 21 urteko jokalarari Ermuarra dugu hau. Lehenengo krosak egiten hasi zen baina

gero, eskubaloian jokatzera pasa zen. Josunek, bost urte daramatza jokatzeko talde honetan, eta oso pozik aurkitzen da. Neska gazte honen helburuak, ez dira oso handiak, hemen ondo jokatzera, eta ekipoarekin batera gorago heltzea.

Eskubaloian arloan, Amaña Gaztea, emakumezko talde bakarria da gure herrian. Adin ezberdinetako hiru talde daude, eta aurten emaitzak, nahiko onak izan dira orain arte. Guk bereziki nagusien taldean finkatuko gara, nahiz eta Josunek dioten bezala, "taldeak, gazteak ondo prestatzen saiatu behar dira. Behetik hasi behar da, talde on bat irten dadin".

argitzen digu Josunek.

Ekonomia kaxkarra

Eskubaloi talde hau, ekonomikoki oso egoera kaxkarrean aurkitzen da. Aurtengo denboraldian, rifak eta beste laguntza txiki batzuen bidez hor goian egotea lortu dute. Esan beharra dago datu garrantzitsu bezala, talde honetan, ez duela inor txokor ere kobratzen. "Bidaierako diru juxta dauka eta ez entrenatzaileak eta ez jokalariek ez dugu dirurik ikusten".

Talde gazte hau, Eibar, Elgoibar eta Ermuko 13 jokalariz osaturik dago. Talde honen lehendakaria Maite Hurtado eta entrenatzailea Pablo Aranzeta, taldea aurrera ateratzea lortu dute, horra hor, orain bertan betetzen duten lehenengo postua.

Amaña Gazteak, 2. maila nazional-jokatuak, eta momentu honetan lehenengo mailara igotzeko fasean daude. "Lehenengo partidua irabazten badugu, bigarren fasea jokatu beharko dugu; hori irabazi ondoren, galiziarra joango garelarik. Hau dena noski, partidua guztiak irabazten baditugu eta hau, oso zaila da; hala ere ondo egiten saiatuko gara."

Etorkizunak erabakiko

Etorkizunari begira, talde honen asmoak aipaturikoak dira, hau da, lehenengo mailara igo eta hori lortu ezkerro, hor mantentzea. Baina hau

lortzeko, diruaz aparte, jendearen animazioa beharrezkoa da. "Eibar eta bere inguruko zaletasuna oso gaizki ikusten dugu. Partidua ikustera ez da ia inor joaten eta hau ekipoarentzat, ez da batere mesedegarria. Gainera, jokalarik falta handia dago; jendea, kontzientziatu egin behar da, jokalaririk gabe ez dagoela ekiporik.

Talde honen beste arazo larri bat, entrenamendueen kontua da. Polikiroldegi edo ta unibertsitate laboralean entrenatzen dute baina heuren saioak, gauean egin behar dituzte. "Hala ere, hau ez da arazo bakarria arlo honetan, jendea kanpoan ikasten ari da eta orduan egun batetan bakarrik entrenatu dezakete. Hori oso gutxi da, kontutan harturik hiru egun astean bakarrik entrenatu dezakegula eta asteburu guztietan partidua daukagula.

Beraz, talde honen arazoak beste talde guztien arazo berberak dira, bai diru falta eta bai jende falta handia dago, eta benetan behar handia dago gure herrian bereziki.

Deportiboko urpekoak



Eibarko Klub Deportiboaren Urapziko Batzordeak urte honetako daukan egitekoen artean, kirola eta turismoa elkartuz txango bat antolatu du Medas irletara, L'Estartit-erara hain zuzen.

Txango hori Aste Sanduan egingo da, irteera martxoaren 27an (asteazkena) izango da eta itzulera apirilaren

lean (astelehena). Txangoaren antolatzaileak barkoa eta hotela hartu dute. Bost inmersio egingo dira eta norbaitek hala nahiko balu inmersio gehiago egin daitezke. Txango horretan sartzen dena hauxe da: bidaia (egonaldia, egun osokoa ordainduta), botilak betetzea, barkoaren irteera bat eta interesgarritzat jotzen bada, inguruko herriren bat ere ikusteko aukera egingo da.

LITERATURA

Edozein hiritan

Gaueko hamaika t'erdia. Edozein herriko edozein kale batetan. Erdian bi: hura neska eta hura mutila.

—Quaii...! Zer dira abots horiek?

—Ezer laztana. Berriz ere, Antonen handikeria eta Praxku, "gau-hontxa" ari dira ohiuka. Zeinen erropa ezberdin, baina sakonean ilusio berbera, beste baten antzerakoa izatea. Zeren, zer? Zein ezberdintasun egongo litzateke Anton eta gure artean? Forma izango zen azken finean ezberdintzen gaituena. Gu, hauzo berdinean bizi gara; ezberdintasuna, gu bere lehio azpian bizi garea. Erropa, denok dugu; ezberdintasuna, gure maindireak joandako egunkariokoa direla eta bereak setazkoak, masailako larruzala zimurtu ez dadin. Baina azken finean zer?

—Zer? Ezer? Berak ez daukala beste ezertarako presarik, ispilura azkar joateko baizik. Baina guk, dendetako kristaletan begiratu behar ditugu gure erropa erdoilduak, gero eta nazka handiago ematen dit nire gorputzak.

—Ba niri ez. Ados nago nire oraingo egoerarekin. Ez dut esango aldatuko ez nuenik, baina...Nahiko alai bizi naiz. Zurekin nago, egunero gutxi-gora behera. Jan



Nerea Atxa. Aldatxe ikastetxean egin zituen ikasketak. Lehiaketa ezberdin batzuetara presentatua. Orain dela bi urte naruzko zexen saria irabazi zuen. Sarietarako idazlanak eginez gainera, eskolarako idazlan ugari egin ditu. Hamazortzi urte ditu.

Praxku; bere, nahiz eta egundoko mozkorra hartu, Antonen izakera somatzen du.

—Beno ba niri ez zait hain kaxkarra iruditzen Anton... —Ei!!

—Trankil, ez naiz berarekin joango. Ez nuke berarekin aldegera, nahiz eta bere itxurkeria guzti hori egia izan.


—Ba nekien nik ba, hobeago zela espirituz behartua izatea, baina ez pobrea... (dio, bere gorputza neskarenganatz hurbilduz). Beste batzu askoz ere indartsuagoa uste dute bere burua eta ezin dezakete bere gorputza goizeko ordu bietan altza. Oi! Ze mundu alperla!

—Hotz dago, baina nire "sucesos"ko orri guzti hartu duzu!

—Eta ze mundu erantzunkorra! Ez zaitez has denatzen kehatzen, zeren bestela "gau-hontza"-k hartu duena baino, zartada handiago bat irabaziko duzu. Ados?

—Bai generala. —Beno ba generalak lo egitea nahi du. Grumete, igo farola-mastilera eta jar ezak hire gabardina zapaldua argiaren parean. Orain ixilik; isilpean bego Antonen itxura, eta geure artean, gure bizia.

—Gabon generala maitea. Eguzkia etxe tartetik irten arte, grumete.



IZENBURUA: AZKEN BILKURA
IDAZLEA: FRED UHLAM
ITZULTZAILEA: LUIS BERRIZBETTIA
ARGITALETXEA: ELKAR
ORRIALDEAK: 95

Fred Uhlman 1901. urtean jaioa eta larogaitalau urte igaro ondoren, 1985. urtean hila. Autore honek, osoki ezagutu zuen Hitler-en botere eta eginak

Judua genuen oraingo idazle hau. Hitler boterera heldu eta ondoko hilabete jarraietan Alemania utzi eta Parisera abiatu da, (baina bere familia osoa galduko du Alemanian). Parisen artista ospetsu artean bilakatuko du. Hala ere, bere burua mantentzeko, beste hamaika lanetan arituko da; kazetari, arrain saltzaile... Beranduago, Espainara joango da, eta bertan, emaztegai ingeles bat aurkituko du, ingalaterara abiatuko delarik, bertan bizi izatera, hango etxea, intelektual errefuxiatuen axoltze bilakatu. Hala ere, hilebete batzu igaro ondoren, preso hartuko dute, "Hitler-en berehalako asasinatzea gauza egokia ote zitekeen ikusteko" kontseilu bila heldu bait zitzaizkion batzu. Honela etsaien amu bilakatu.

Liburu honen mamia, erizki lotua dagoela idazlearen bizitza eta inguruarekin aipatu beharra dago. Judu eta nazien arteko gatazken artean zabaltzen den historia trajikoa da. Ez oso labur, ezta oso luze kontatutako historia triste baina egiazkoa izan zitekeen bat.

Hitler boterera heltzen da. Alemania borroka politikoko gatazka eta bizipen zailtasuna nabaria delarik. Hala ere, guzti honen gaitetik, eskolan elkar ezagutuko bi mutilak, beraien artean sortuko den harreman estu bati hasiera emango diote. "1932ko Otsailaren sartu zen ene bizitzan, sekula berrez ez aterat-

zako". Honela dio liburuko lehen esaldiak. Hans Schwarz izeneko mutikoa, bere eskola berean, orain dela gutti agertu den Konrad Graf Von Hohenfels mutil berriaren lagun min bihurtzen da. Bata, bere aita mediku den judutar familia baten oinordekoa da, bestea berriz, Alemaniako dinastia zahar batetako hurrungo. Biak-batak bestea ezagutu aurretik-bakardadearen zuloan murgildurik zeuden, beraien arteko erakarpenak, laguntasun fruituak eman arte. Nahiz eta, bien artean agertutako zailtasun guztiak handiak izan, sortutako adiskidetasuna gero eta sakonago izango da: erlijioa, politika, batak besteari gurasoak aurkeztu ezin...

Hans, Alemaniako giroa dela eta, Ameriketara bidalia izango da. Hala ere, makina bat urte igaro ondoren, Alemanian egondako azken egunetan, haibat mezpresatua eta zapaldua izan zen "Karl Alexandre gymnasium"etik, diru laguntza eskari bat helduko zaio, bertako ikasle izaniko hildakoen zerrenda batez horniturik. Zerrenda honetan, Konrad Graf Von Hohenfels izena ageri da, baina ez besteen bezala guda edo dena delakoan hila. "Hitler hiltzeko konplotean inplikaturik. Exekutaturik." baizik.

Gai erakarri eta interesadun liburua. Oso sakona. Hiztegi eta idazkera aldetik, ez da zaila baina ezta errezentzarikoen multzoan sartzeko ere. Liburu erakarria eta irakurtzeko nahiko erreza

FIRIN FARAN

BEKAK

■ Margit et Folke Pehrzon bekak

Margit eta Folke Pehrzonek egiten du dei.

Suediarra edo eta inglesa menperatzen duten lizentziatuak dira eskatzaileak. Espezializazio. Doktoratu eta Postgrado ikasketak dira gaiak, 200.000 eta 800.000 pta. bitarteko diru-laguntza emango da. 1990.eko Martxoaren 15era arte izango da eskatzeko epea.

■ "Cañada Blanch" bekak.

"Cañada Blanch" bekak izen bereko fundazioak egiten du dei. Baita British Councilak. Lizentziatuak dira eskatzaileak. Natur Zientziak, Zientzia Zehatzak, Informatika, Ingenieritza eta Teknologia dira gaiak.

Iraupen luzerako bada, matrikula, manua eta lojamendurako hileroko kopurua, liburuak erosteko eta bidaiarako subentzua emango da. Baina iraupen laburrerako bada, bekaren zenbatekoa

hasieran emango da osorik. Iraupena 10 hilabeteokoa. 1991.eko Martxoaren 10era arte izango da eskatzeko epea.

■ Belgikako Liejako unibertsitatean ikasketak burutzeko bekak 1991-92 ikasturtea.

Kanpo Arazoetako Ministeritzak egiten du dei. Frantsesa menperatu eta 35 urte bete ez dituzten Goi-mailako Graduatuak. Ikerketa edo Doktorakuntza lanak dira gaiak. 30.000 franko belga hilero eta Kanpo Arazoetako Ministeritzak eskeinitako bidai-laguntza. Bederatzi hilabeteko iraupena izango du. 1991eko Martxoaren 15era arte izango da epea.

■ Atzerriko Unibertsitate eta ikerketa zentruetan ekonomia eta komunitate zuzendari buruzko ikasketak sartzeko bekak.

Ramón Areces fundazioak egiten du dei. Lizentziatuak dira eskatzaileak. Europako komunitateari buruzko

ekonomia eta Zuzenbidea dira gaiak. 15005 hilero, matrikula eta joan etorrirako ere emango da. Bederatzi hilabeteko iraupena izango du. 1001.eko Apirilaren 16ra arte izango da eskatzeko epea.

LEHIAKETAK

■ "Eskola eta Natura"

Nekazar kreditu Bankuak egiten du dei. EEMM eta EGB-ko ikasle eta irakasleak parte har dezakete. Lanak natura eta inguru giroko gaietan oinarriturik egon behar dira. 1.000.000 ptako saria emango da. 1991eko Martxoaren 15era arte izango da aurkezteko epea.

■ "Ateneo de Sevilla" elaberrietakoa

Ateneo de Sevillak, Sevillako Udaltzaileak, egiten du dei. Nazionalitate guztietako pertsonen idatzi dezakete. Lanak gaiteraz idatzita eta orijinalak izan behar dute. 5.000.000 ptako saria emango da. 1991eko Martxoaren 15era

arte izango da lanak aurkezteko epea.

■ Lehiaketa periodistikoak

San Mateo Seis-ek egiten du dei. Gaiak libreak dira. 4 foliotako luzapena izan behar dute. Ilustrazioak ere joan litezke. 15.000 ptako saria emango da. 1991.eko Maiatzaren bera arte izango da aurkezteko epea. Argibideak telefono hontan aurki ditzakezue: (91) 531 45 35.

■ Cienma Jove 91

Balentiakoa kultura eta zientzia kontseiluak egiten du dei. 26 urtetik beherako Espainiar Estatuan bizi diren gazteak parte har dezakete. Lanak gehiengo 30 minutuko iraupena izan behar dute. VHS formatoko bideoak izan behar dira. Umatik BB, 700.000 ptako saria. 1991.eko Maiatzaren 5era arte izango da aurkezteko epea. Telefono honetan argibide gehiago izango dituzue: 96 347 01 44.

■ "Fotonatura"

Natura, Kodak, Minoltak egiten du dei. Argazkilaria profesionalak edo zaletuek

parte har dezakete. Natura da gai bakarra. Formatua zuri-beltzez edo kolorez, pelikula edo papera Kodak izanik. 250.000 ptako saria emango da. Argibideak: Concurso Fotonatura. Marqués de Villamagna, 4.28001. Madrid.

IKASTAROAK

■ Apirillean Eibarren ikastaro batzu ere izango dira:

- Merkataritzaren gestioa. I maila, Apirilaren 8tik aurrera. 24 ordu izango direlarik, Unibertsitate Laboralean.
- Autocaci IO izeneko irudira ordenagailuz. Apirilaren 5ean hasiko da II maila. Unibertsitate Laboralean baita ere.
- Aplikatuak elektronikoa industria II maila. Apirilaren 15ean hasiko da. 60 ordu izango ditu. Unibertsitate Laboralean izango da.
- Kontrol estadistikoa. Apirilaren 2tik aurrera. 25 ordu izango dira. Eskola Armeria izango da tokia.
- Ordenagailuekin inprimitzeko zirkuituen simulazioa. Apirilaren 2an hasiko da. 69 ordu eta Eskola Armerian izango

da. •Neumatika. Apirilaren 2tik aurrera. 80 ordu. Eskola Armerian.

•Planoen interpretazioa II maila. Apirilaren 9tik. 70 ordu. Eskola Armerian izango da.

BIDAIAK

■ Sierra Nevadara eskiatzera

Aste Santuan. Martxoaren 24tik 30era. Eta 31tik 6ra. kurtsiorik gabe 83.900 pta. pertsona bakoitzeko eta kurtsiloarekin 112.000 pta. Alpe DHuezera eskiatzera. Aste Santuan, Martxoaren 23tik 30era eta Martxoaren 30etik Apirilera 6ra. Kurtsiorik gabe 53.800 pta. pertsona bakoitzeko. Kurtsiloarekin 88.000 pta.

■ Snowboard

Asteburu guztietan. Aste Santuan Martxoaren 25etik 29ra eta Martxoaren 29tik 31ra. Arratsaldeko abonoa: 5.200 pta. egunetan

Eguneroko bonoa: 9.750 3 orduko klaseak egunero. Talde txikitetan eta monitore espezialistak.

■ Heli-ski

Eskaia helikopteroa garraio bezala erabiliz. Penasqueko bailaran eta Tenako bailaran. 15.000 ptatik 51.500era.

■ Ski-trabesia

Mendebaldeko Pirineoetan. Benasqueko bailaran, Araneko bailaran Alpeetan eta Txekoslovakian. Erreserbak hile bat baino lehenago egin behar dira. Aste Santurako diru. 37.000 tik 130.000 pta betarteko prezioak daude.

■ Multi ekintzak

Belagun eta Guarako mendi-katean egin daitezke multi-ekintzak. (Huesca) oso interesantek. Mendi-bizikleta, parapente, eskalada etab... egin dezakezue.

■ Piraguismoa

Picos de Europan. Asteburuetan. Martxoaren 16tik 14ra, 23tik 26ra, 26tik 31ra, eta Apirilak letik 4ra 14.500 pzetatan.

THE JAZZMAN GARAGDOTEGIA
HOLANDESAK, ARGENTINARRAK, BENEZIANOAK.....
NAZIOARTEKO SUKALDARITZA
SAN JUAN KALEA. Tel: 700682 EIBAR

AM Dena etxe barrurako
Herman sartutako armairuak
Futoi aldagarriak, Tatamiak...
Bista Eder, 3 Tel.: 118999 Eibar

umea
Umeen eta gazteen arropak
Errebal, 16 Tfnoa. 113164 EIBAR

IKASLE
LIBURU ETA PAPER-DENDA
Tiburtzio Anitua 20, B (Amaña) Tel: 110130

STRADA KARROZERIAK S.A.
Otaola, 22 Tfnoa: 117026 Eulogio Estarta Tfnoa: 740712/16
EIBAR ELGOIBAR

Zagora Hizkuntzen liburutegia
Ci/ Arragieta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

Kili Kili
Gosariak
Platos hobinatuak
Goizeko isolatik zabalik
Eskerhutsuta Tfnoa: 11 21 01

KATU KALE



Gurbil tabernakoak gogor ari

Eibar ez da orain dela hogei urteko herri industrialia. Fabrikak itxiz joan diren bitartean 3. zerbitzua garrantzia

hartuz joan da. Beraz, lehenago eibartarron ogibideak eta oraingoak zerikusi gutxi dauka.

Zerbitzu horien batengana jo dugu oraingoan, gazte batzuk montatutako taberna batetara, Gurbilera hain zuzen. Bertan izan gara Igor, Fernando eta "Fiti"rekin. Hirurak lehenago ere bazeukaten tabernaria bezala lan egiteko esperientzia, taberna berdinean gainera. Baina iaeko ekainerate lan egin eta soldata bat jaso besterik ez zuten egiten bertan. Ekainean, "Fiti"k soldaduzka bukatu eta gero, besteekin elkartu eta euren kabuz zerbitzu montatzeko ideia eraldatu zuten, eta hala egin ere. Traspaso desberdinak, diru kontuak, ..etab. ondo begiratu eta gero Gurbil taberna hartzea erabaki zuten.

tsona dauzkagu lanean, bat barran eta beste bat sukaldean, asteburuetan taberna batetara, Gurbilera hain zuzen. Bertan izan gara Igor, Fernando eta "Fiti"rekin. Hirurak lehenago ere bazeukaten tabernaria bezala lan egiteko esperientzia, taberna berdinean gainera. Baina iaeko ekainerate lan egin eta soldata bat jaso besterik ez zuten egiten bertan. Ekainean, "Fiti"k soldaduzka bukatu eta gero, besteekin elkartu eta euren kabuz zerbitzu montatzeko ideia eraldatu zuten, eta hala egin ere. Traspaso desberdinak, diru kontuak, ..etab. ondo begiratu eta gero Gurbil taberna hartzea erabaki zuten.

"Fiti"ren esanetan "Bizente Belda, Gurbilaren arduradunarekin elkarriketa bat izan eta gero taberna guk hartzea erabaki genuen. Hasiera oso gogorra izan zen. Ekainaren 15ean zabaldu genuen, pentsa ezazu! San Juanak bertan zeudela! jende gutxi ginenez lagunengatik ez zuten sartu, behar izan genuen eta. Geroztik hona lan pilla bat izan dugu ere. Gu hirurotatik aparte beste bi per-


sona dauzkagu lanean, bat barran eta beste bat sukaldean, asteburuetan taberna batetara, Gurbilera hain zuzen. Bertan izan gara Igor, Fernando eta "Fiti"rekin. Hirurak lehenago ere bazeukaten tabernaria bezala lan egiteko esperientzia, taberna berdinean gainera. Baina iaeko ekainerate lan egin eta soldata bat jaso besterik ez zuten egiten bertan. Ekainean, "Fiti"k soldaduzka bukatu eta gero, besteekin elkartu eta euren kabuz zerbitzu montatzeko ideia eraldatu zuten, eta hala egin ere. Traspaso desberdinak, diru kontuak, ..etab. ondo begiratu eta gero Gurbil taberna hartzea erabaki zuten.

Etorkizuneko proiekturen bat badaukaten ala ez galdetu diegu, "oraingoan lan egitean besterik ez dugu pentsatzen. Zor duguna ordaindu arte ezin gaitzek ezertan sartu, gure irabazi guztiak bankuak bereganatzen ditu, beraz, kontaktuko dizut urte pare batzu barri!"

Rikardo Bastida: "Xakean ezinbestekoa da konzentrazio gaitasuna"

4 edo 5 urte zituenean erakutsi zion bere aitak piezak mugitzen. 12 urterekin Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren Eibarko Ajedrez edo Xake taldean hasi zen jokatzeko, talde honekin hainbat eta hainbat sari irabazi zituelarik. Azkenengo 5 urteotan Euskadiko Xake Txapelketa den Hondarribiko taldeko partaide da, eta honek ematen dio goi mailako jokalariekin jokatzeko aukera. 26 urteko gazte hau eibartar Klub Deportiboko bazkidea izateaz gain klaseak ematen ditu bertan; berarentzat oso pozgarria eta polita izango litzateke urte batzuk barru bere ikasleak bera baino hobeto jokatzeko ikustea.

Eta Kitto.- Ajedrez nola definituko zenuke? Kiroltzat har genezake?
R. Bastida.- "Karpov-i galdera hori egin ziotenean zera erantzun zuen: "errekopilatuta dagoen guztia kontutan izanik Zientzia litzateke, partida baten barruan dagoen borrokagatik kirol bat eta imaginazioa sartzen denez Arte bat". Hala ere, beste batek "xakea pieza batzuk agur baten gainean mugitzea dela" esan zuen. Beraz, bakoitzaren arabera xakea gauza bat ala bestea izango da. Ni ez naiz sartzen hola-ko eztabaidetan zeren Karpov-ek esandakoa egia da, baina baita besteak esandakoa ere".



Eta Kitto.- Zer erlazio dago zuk burututako ikasketak, hau da Filosofia eta Xakearen artean?
R. Bastida.- Bai Filosofia eta bai Xakea biak dira gauza abstraktoak, eta alde horretatik nere izaerari asko doakio holako gauzak egitea. Hala ere, ni ez nintzen sartu Xakean Filosofia egiteagatik, ezta Filosofian xakea egiteagatik ere.

Eta Kitto.- Momentu honetan zer da egiten ari zarena?
R. Bastida.- Klub deportiboko bazkidea izateaz gain, hemen ematen ditut klaseak; gainera harremanak ditut hemengo jokalariekin.

Orain dela 5 urte azkenengo urteetan Euskadiko Txapelketa izan den Hondarribiko Xake Taldeak deitu ninduen. Niretzat hau oso oportunitate ona izan zen han zegoen jendearekin asko ikasteko aukera bait nuen. Beraz, han jarraitzen dut, bai pertsonalki bai jokalaritza modura, oso pozik gainera. Askotan pentsatzen dot asko zor diodala Eibarko taldeari eta segurazki egunen batean bueltatuko naiz, eta baita nire anaia ere Hondarribiko taldean dago. Hala ere, Hondarribiko taldean beste maila batetik jokatzeko da; Euskadiko Txapelketa izateaz gain Espainia mailako Txapelketan parte hartzeko aukera daukagu Hondarribian. Eta honek ematen

dizu zu baino hobeto diren jokalariekin jokatzeko aukera. Orain dela 5 urte ez neukan dudarik hara joateko baina momentu honetan ez dut planteatzen Xakea profesionalki; beraz, segurazki etorkizunean hona bueltatuko naiz bizitzeko dihardudan esperientzia besteei erakustera. Orain asko gus-

■ "Egunean batean segurazki Eibarko taldera bueltatuko naiz"

tatzeko zait irakastea eta espero dut orain dela urte batzuk nire ikasle batzuk ni baino hobeto jolasten ikustea, hori izango zan niretzat oso pozgarria.

Eta Kitto.- Zer nolako sariak eskuratu dituzu urte hauetan?
R. Bastida.- Ni bigarrena izan naiz ia guztietan. Segurazki ez daukat txapelketa baten karakterra. Beste batzuk txapelketa batetik. Lehenengo postua eta beste batetik bostgarrena lortzen dute. Baina ni normalean bigarren postuan gelditzen naiz. Ez ditut ia inoiz emaitza txarrak egin zeren absolutuetan beti izan naiz lehendabiziko postuetan, baina inoiz ere ez lehendabizikoan. Infantil, Jubenil eta Partida azkarretan lortu izan dut hala ere txapel-

peldun izatea. Taldeak, Eibarko taldearekin bost bider izan gara Euskadiko Txapelketa.

Eta Kitto.- Nolako da Rikardo, Gipuzkoako eta Euskadiko Ajedrez edo Xake maila?
R. Bastida.- Maila nahiko ona da. Hala ere, Euskadiko maila askoz hobetua zen orain dela 5 urte, beste komunitateak (Madril, Canarias, Valencia) nahiko atzeraturik zebiltzalako. Azkenengo urteetan hauek asko hobetuta dute, eta ondorioz gure maila gora doa baina astiroago. Zergatik gertatzen da hau? Azkenengo urteetan profesional gutxi sortu delako, eta bestealde beste toki batzuetan Txapelketan gehiago jokatzeko direlako.

Eta Kitto.- Zer nolako kualitateak edo ezaugarriak behar ditu Xake jokalaritza batek?
R. Bastida.- Derrigorrezkoa den gaitasuna konzentrazioa da. Hortik aparte, intelgentzia abstraktu bat edo logika aldetik kalkulatzeko gaitasuna behar da, baina jendeak uste duena baino gutxiago. Karakter aldetik, aldiz, goi mailan izateko oso karakter gogorra eduki behar da, joku guztietan bezala. Xakea psikologikoki oso gogorra da, oso zaila izaten da konpetizioetan partida bat galduta ondoren hurrengo ondo jolastea.

... eta kitto!
Gomendaturik



Judas Priest; Painkiller edo oinazearen hiltzailea

Heavy Metal klasikoaren zalezareten guztiak, aukera ezin hobea daukate orain izendatuko dizuegun izenburuarekin: bere izena PAINKILLER da eta noski beraren sortzaile, agian klasikoetatik klasikoena izan daitekeen talde Heavy bat; JUDAS PRIEST.

1990ean kaleratutako taldearen azken lan honek, esan behar, duela hogeit urteko HERO HERO-a eta geroago etorriko ziren SCREAMING FOR VENGEANCE etabar, gehiago gogoratzen dituela, 86-ko TURBO-a baino, baina esango dugu atzera bueltatze hau era askoz aberatsago batean ematen dela, zeren musika egiteko orduan beraien heldutasuna erakusten dute baina hogeit urte gutxiagorekin normalagoa izango litzatekeen martxa bat azalduaz.

Honelako diska potente bat ateratzeko arrazoia garrantzitsu bat, taldearen formazio berria izan daiteke. Nahiz eta betiko hirukote garrantzitsuenak jarraitu, Rob Halford ahotsa, eta berarekin, betiko K.K. Downing eta Glenn Tipton gitarristak, aipatu behar da Racer X-etik etorritako bateriak berriak taldeari ematen dion sendotasuna eta indarra. Nahikoa da esatea, diska, beraren solo batekin hasten dela.

Abesti batzuk aipatzekotan

PAINKILLER; ALL GUNS BLAZING edo METALMELTDOW izendatuko ditugu eta ez ditugu beste abesti guztien izenburuak jartzen aspergarri ez izateagatik, abesti onenak zeintzuk diren esatea oso zaila egiten bait zaigu. Beraz, maila ezin hobeko lana, kaleratu berria den PAINKILLER hau.

Diskaren hildoa pixka bat azaltzekotan, esango dugu, lehenengo aurpegia kriston "metallera" bat dela goitik behera, edozein K.O. uzteko bezelakoa, eta bigarren aurpegia aurrerantz doan neurrian, diska, mantsotzen doala hasierako tiroa pixka bat erregulatuz eta honela aberatsagoa eginez. Bukaera ONE SHOT AT GLORY-rekin helden, da, lan izugarri bat, beraien maila konfirmatzeko balio duena eta disko bukaerarako ezin hobea den abestia.

Ez dakigu jakingo duzuen, baina hilaren 9-an Anoetako Belodromo-ra datoz aurtengo jiraren barruan. Beraien azkenengo kontzertuan egon zinetenak zihur errepikatu egingo duzuela, ezta? Orduan, Ram it down aurkeztera etorri ziren. Hori duela bi urte izan zen eta izugarriko ekitaldia eman zuten. Badirudi, lan honekin arrakasta osoa lortzea irten direla, beraz hemen izango gara kontzertu izugarri horren zain.

...Eta Kitto!-ren segimendu galdeketa. Inkesta

"...eta kitto"-ko 24.alea duzu eskutartean, horrek esan nahi du bi urte-tik hona gabiltzala aldizkaria plazaratuz (Udako oporraldiak salbu, noski!). Oraingo hontan boligrafoa eskuan hartuta datu hauek betetzea gustatuko litzazuke zuen eritzia jakiteko asmoz.

ABANTAILAK! Hadi egon! Honako opariren bat eraman ahal duzula (beno, hori galdeketa kopuruaren arabera):

- Ego-Ibarrak argitaratutako bost liburu zoragarri, edo
- Goxokiz betetako hiru pakete handi, edo
- Besarkadan goxo bat.

Pobreak garenez (baina jatorrak) galdeketa ebaki eta seilu batez honako helbidera bidali ezazuen eskatzen dizuegu:

EUSKARA BATZORDEA
"... eta Kitto"-ren inkesta
EIBARKO UDALA

	Oso ondo	Ondo	Erdizka	Gaizki
Formatoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Maketazioa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Argazkiak/Irudiak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Paperaren kolorea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Estadistika taulak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Iruzkina edo komentarioa:			
			

HADI! hauek dira GALDERAK!

- Zeure izena (abizen gabe, anonimoa nahi dugu)
- Ikasketak eta/edo lanbidea (lanean bazaude, noski!).....
- Telefono zenbakia (oparia bidaltzeko):

EDUKIA	IRAKURTZEN AL DUZU		IRAKURTZEN BA DUZU ZER DERITZOUZU?			
	BAI	EZ	TXARRA	ESKASA	ERDIZKA	ONA OSO ONA
1. Orrialdea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Urak dakarrena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Urak daroa (2.orr)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gure artean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zerdiozu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Inkesta fotografikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gazte gara gazte (1.Orr. berdea)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Erdikoak (berdean)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bolo-Boloka	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Atal berezi bati buruzko iruzkina edo komentarioa						
.....						
- Zein gairi buruz gustatuko litzazuke guk gehiago sakontzea edo gehigarriren bat ateratzea?						
.....						
.....						

J. Antonio Artamendi eibartar filosofua

“Industriak espiritu kritikua dakar”

J. Antonio Artamendi, Eibarren jaixo ta makiña bat lekutan ikasi ta bizi izan ondoren Donostiako EUTG-en irakasle ta dekanu izana ta gaur egunian Deustuko Unibertsitatan irakasle dogunakin berbetan izan gara.

Oraingo honetan filosofiaz apurtxo bat gahixao jakitzeko asmotan, eibartarren filosofixia zelakua dan ta denporan zihar zelan kabixau dan ezagutzeko aukeria emongo dautsuegu.

Ikasketen hasiera

“Ni Aranian jaixotakua naiz, Fundidores kalia. Gero jua nitzan seminariora hamazazpi urtekin ta han egon nitzan, Gasteizen. Gasteiztik gero Donostiara, ta gero handik, abade egiñ ondoren jua nitzan; bi urte Erromara, bost urte Parisera, beste urte bete Madrilera ta urte erdi edo Munichen izan nitzan. Gero, etorritakuan, bialdu ninduten filosofixia irakastera, baiña nik nire gaixa beti izan dot antropologixia. Ni ibilli naizeneko autoriak pillakia izan dia baiña nik Merleau-Ponty-ri buruz egiñ neban tesisa. Hau oso kuriosua zan ze ziñatura billa ibili zan Gernikako bonbardeua zala ta ez zala; ze berak, gerra denporan, haren kontrako dokumento bat egiñ zeban ta han ibilli zan firma billa. Horri buruz egiñ neban tesisa ta gero hasi ninduten klasiak emoten; ta gero klasiak EUTG-en emon nittuan urte pillo batian, han izan nitzan dana: irakasle, dekanu... Ta gero esan zesten hona etortzeko, Deustua, asignatura batekin: hizkuntzaren filosofia euskeraz emoteko.

Gero hamen oposiziñuak egiñ ta katedratiko egiñ ninduten, ta hamen geldittu nitzan. Gaur egunian nik esplikatzan dodazanak: giza emakumiari buruzko filosofia, hizkuntzaren filosofia, ta hirugarrena giza emakumien eskubidiak; hori, azkenenguari soziologian emoten dot”.

Bibliografia

“Idatzi ba... larregirik ez, baiña batzuk bai. Lelengua “Técnica y civilización” izan zan, baiña agortuta dao. Teknikiak ze andorio dekortzen, zelan jokatzen dan teknikian aurrian, zelan horrek sortzen daben bizimodu barri bat, ta horrek dakazen ondoriuak da hor aztertutakoa.

Gero beste lan bat egiñ neban - euskal filosofiari buruz-, hau motzaua izan zen. Beste bi liburu be ein dittut euskal kultura aztertuaz, hori zera izango litzateke: gizarte bat errealitatan aurrian zelan jartzen dan aztertzea; orduan zera eukiko geunke: zelan jaten daben, zelan eitten daben lo, zelan eitten dittuan etxiak...

Oiñ bertan, euskal pentsamenduaren historiaren gainean dihardut biharrian, Caja Laboral liburu betendako landu neban ta berriro argitaratu bihar dot. Ta oiñ bertan argitaratu dabe “Euskal pentsamenduari buruzko Historia”; Hirugarren Karlistadanik gure gerraraño doiana.

Beste lan bat dakat inprentan, baiña hori da ilustraziño, posmodernismoa ta Euskal Herrixaz, gaurko egunekuaren gainean da batez

be”.

Zelakua izan zan zure ikasle sasoiak?


“Oso ona. Zeaittik? Ba nik betik egiñ izan dotelako nahi izan dotena. Oiñ arazuak be izan ziazan, euki gendun hamaika arazo, ta alde guztietatik!! Kalekuak ta bestelakuak be bai, baiña pasau zian. Gero hona etorri nitzanian be hamaika arazo izan zian, baiña, zeñek ez zeban euki problemarik orduan?! Hamaika lasai be ibili zian! Neuk ezautzen dittut ta... gero larri ibili ziala ta; baiña... haren larritasuna, ha larrixa bazan, kontxo!!

Oiñ zelan ibili giñan?! Gustora. Nere gustoko gauzak egiñaz; bizimodu gogorra ba, bai horixe!!”

Zelakua da zure irakasleztako esperientziak? Konpentsaziñorik edo?

“Oso ona, oso ona, oso ona. Konpentsaziñua ikaragarria da. Esangotsut hor eh... hirurogeta zortzi-hamarrian eh...: irakaskuntzia oso gogorra zan, estudiantien aurrian agertziak nahikua merito zekan. Orduan sasoiak irakaskuntzan ibiltzia oso gogorra izan zan. Nik ezautzen dittut ez bat ez bi, orduan deporan irakaskuntzia itxi zebenak. Girua zan oso gogorra, etara kontuak gerriakin ta zelako istilluak zeuazan. Oiñ, emon genduan arpeixa; horretara ohittuta neuan Paristik. Garai hartan gogorra izan zan irakaskuntzia.

Baiña oiñ ez, oiñ ikasliak dira eh... bueno!! Gauza bat esangotsut: ni gaixorik egon nitzan Donostiara janda, ospitalian egon nitzan UBI-xuan ta hemengo ikasliak jua ziazan Donostira bixitatzer; ta telefonotik



dirazela.”

Eibartarren filosofixia ta idiosinkrazia zelakuak dia?

“Ni oso eh... esaten dot: -ejerzo de eibarrés-. Arro nao eibartarra izatiaz eztao dudarik. Hor filosofia esateko gauza asko egon dira: eibartarrak noiz nora? Noiz izan dira ta noiz dira? Non jartzen dozu muga? Eibartarrak beti izan dia gaur dian modukuak? Ba

dau ondo, eh? Ez berez datorrelako. Orduan, industria sortzen danian norbera da bere buruan jabe, ta Eibarren zulo gitxi dao ta... sortzen da giza-emakume ausnartzia. Baiña hori ezta Eibarkua, industrixiak emoten dabena, -formas de producción-ek emoten edo ekartzen dabena da hori. -Zuk zer egiñ dozu? Ba nik egiñ juat eskopeta hau, edo pistola hau, neuk egiñ juat!! -Hau eskas eiñda daolako. Orduan zu eskopetari eskasa ziñake ta bestia eskopetari ona: hor espiritu kritikua sortzen da”.

Posmodernismoa zer da? Zelan ikusten dezu Eibarren?

“Alde batetik, ez Eibar, eh? Gizakume guztiak, bizi garanok, gu gara porrot baten semiak, eh? Guk uste gendun ta euki genduzan erreferentzia puntu batzuk ta oiñ harek puntuak behia ju dabe. Ta gero beste gauza bat litzake bai len izaten zala sasoi baketsua, gero krisisa ta handik urtendakuan barriro be sasoi baketsua. Nik uste dot gaur egunian krisis batian beti bizi izango garela. Orduan, zein dao seguru? Iñor bez. Posmodernismoa zihurtasunik eza ta -sálvese quien pueda- izango litzake. Indibidualismoa. Baiña nik eztoz uste horrek asko iraungo dabenik: sortuko dia ereduak hori konpontzeko. Posmodernismoan beste gauza inportante bat giza-emakumien diranekua litzake, hau da, zeñek urtetzen dau aurrera? balio dabenak.

• Oiñ bertan, euskal pentsamenduaren historiaren gainean dihardut biharrian.

• Beste lan bat dakat inprentan, baiña hori da ilustraziño, posmodernismoa ta Euskal Herrixaz.

• Euskal kulturen dabilen jentia justifikatzen dau eiñdako lana esandakuak agertzen dira eta.

• Posmodernismoa zihurtasunik eza ta -sálvese quien pueda- izango litzake. Indibidualismoa.

be deitzia askok.

Ta gero konpentsaziñua be badaka; oiñ horretarako eiñ biozu, ordu asko sartu, gaixa landu, ta gero ba, oso prest egon bestiak onartzeko. Baiña ze esangotsut: euskal kulturen dabilen jentia justifikatzen dau eiñdako lana, ikusten dia hamaika gauza eskolan esandakuak agertzen

beitu: oiñ dala berrogetamar urte ezbarriak giñan. Esplikaziño asko dao zeaittik eze industria sortu zan ta... industrixiak ekartzen dau gauza bat: kritikia. Industrixiak norberak eiñdako gauzia da. Laborantzan sartzen dozu zuk hazixak ta frutua berez agertuko da, baiña artz batek eitten badau mahai bat, berak eitten

Eibarren nik azpimarrauko nebana zera da: Eibarrek aurrera urten dau merkatu itxixakin euki zeban bultzadia zala ta, demostrau dau merkatu itxixan ibiltzen badakixala. Oiñ probau bihar dau zabaljan kapaz dan edo ezta. Eibarrek preparatzen dihardu, apostu bat dakau bestiekin, ta horretarako ezautu, ikasi ta jakin eiñ bihar da.”

GURIDI KAFETEGIA

ANBIENTE ONA
PINTXO BEREZIAK

Untzaga Plaza. EIBAR

Hornikuntza industrial - Ferrería

GABAIONDO BASTIDA

Brikolagea, Babesketza, Tornileria
eta Akabaua edo Pulmentua

Barakaldo, 9 Tfnoa: 120208 - 120212

Larramendi

Etterako
elektrotresnak

Estaziño, 6 Tfnoa. 11 30 11

MUÑOIA

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

Big Ben

Kafetegia

Egiguren 16 EIBAR

Badirudi galdera hau behin baino gehiagotan egin beharko dugula Ermuko kaleetan zehar farmazilarien proiektua aurrera eramaten baldin bada. Euren ideiaia Eibar eta Ermuko farmazien urgentziak edo premiazko zerbitzuak bat egitean datza, gaueko 10etatik goizeko 9ak arte, bi herrialdeetan egunero gaueko 10-ak arte farmaziaren bat zabalik egongo litzatekeelarik. Oraindik ez dira akordio batetara iritsi, nahiz eta udaletxe, kontsumitzaile eta farmazilarien artean elkarrizketa batzuz izan diren.



Non dago "goardiako farmazia", mesedez?

Proiektu hau martxan jarri ezke-ro eibartarrok hamar egunetan izango genuke farmaziaren bat gau osoan zabalik, eta hurrengo bost egunetan Ermura joan beharko ginateke; proportzio hau farmazia kopuruen arabera egin da.

Idea hau ez da guztiz berria, beste herrialde batzutan ere probatu da, kasu batzutan onartuz (Ondarru eta Mutriku, adib.) eta beste batzutan gaitzetsiz (Bergara eta Arrasate, adib.)

Hona hemen Jabier Fernandez (Gizarte ongi-izate zerbitzuko zinegotzia), Rosa Galdos (KIUB-eko arduraduna), farmazilari bat eta Jubilatuen Egoitzan lanean dabilzanen eritzi desberdinak.

■ Ermuko farmazilarien inizatiba

Eibarko farmazilari bati proiektu berri honi buruz daukan eritzia eskatu diogu, "oraindik gauza nahiko geldidua, ez dago ezer fijo, Ermuko farmazilarien inizatibaz bilera batzuk izan ditugu, euren-gandik sortu bait da ideia. Batzuk ongitzat hartu dute, beste batzuk ordea, nire kasuan adibidez, kontrako jarrera hartu dugu, nire ustez jendeari eskeinitako zerbitzu baten murriztea suposatzen duelako, eta hamar egunetik behin farmazia gau osoa zabalik edukitzea ez dudalako

gehiagikeri bat ikusten.

■ Kontsumitzaileak haserre

Jendearen lehenengo erreakzioak ezagutzeko asmoz Rosa Galdos KIUB-eko arduradunarekin ere izan gara. Berak esan digunez jaso ditu jadanik jendearen kezak. "Badabil jendea deika, informazioa eskatu baino euren kontrako jarrera egertzearen. Batzuk Ermuraino joateko garraio problema adierazten dute, beste batzuk Ermuko Kaleen ezezagutza, jendea ez dago batere konforme, nahiz eta oraindik ezer fijo ez egon."

■ Estadistikak ideia berri honen alde

Bestalde, Jabier Fernandez, Gizarte ongizate zerbitzuko zinegotzia proiektuaren alde agertu zaitu. "Farmazilari proiektua esplikatzeraz etorri zirenean niregana lehenik farmazia batek gauean zer nolako bezeroak eta saldutako medikamentuak estudiatzea erabaki nuen, eta hala egin ere. Farmazia baten hamar egunetako salmentak jaso nituen eta atera ditudan datuak benetan barregarriak dira. Urgentziak bi edo hiru kasuz aparte beste guztiak aspirinak, griperentzat jarabeak, xiringak, eta antzerako kasuak izan ziren, gainera errezetarekin (hau da, egun osoa izan dutela farmaziara joateko).

Bestalde jende kopurua oso txikia izan zen, laupabost bezero besterik ez, bera, ideia hau nahiko logiko dela iruditzen zait."

Garraioaren problema konpontzeko udaltzaingoa laguntza posible izango zitekeen galdetu diogunean "gauean hiru udaltzain besterik ez dira egoten beren funtzio konkretuekin, eta ezin dute taxista gisa lan egin. Benetako urgentzia edo premia bat egonez gero logikoa anbulategira zuzentzea da. Bertan badauzkate medizina batzuk, eta beste presazko zerbitzu behar bada anbulategiak bere zerbitzura dauka gau eta egun taxi bat, beraz Ermura joateko ez litzateke arazorik egongo."

Azkenik, Jubilatuen Egoitzan gaixoei lanean dabilzaten monja batzuekin egon gara. "Ez dago inongo eskubiderik, hemen gaixo asko izanik noizbaiten joan behar izan gara farmaziara gauez presazko medikamentu baten bila, eta Ermuraino nola joan kotxerik gabe? Eibarren farmazia bat edo bi besterik egongo balira (bi egunetik behin gau osoa egonik) ulergarria izango litzateke konponbide bat topatzea, baina hamar farmazia izanik oso jarrera berokia agertu dutela uste dugu."

Zer deritoxozu Eibar eta Ermuko farmazilariak gauean txandakatzeari buruz?



Sonia Pildain. 46 urte. Etxekoandre. "Oso txarto daola, zer esan bihar dot, ba! Eibarren farmazia bat egon bihar dau bai egunez bai gauez, gainera Ermua oso urrin dao presazko momentu batian bertara joateko."



Jabier Amesti. 46 urte. Langabezia. "...eta Ermuari tokatzen jakonien Eibarkua itxi? Ez dot hori zuzen ikusten, Ermukuek eitzia dake nahi dabierna baina Eibarri bakian utzi."



Kontxi Perez. 18 urte. Administraria. "Ermuraino joan behar badugu eta gainera farmazia non dagoen ez badakigu, pentsa ezazu zer nolako egoera. Nire ustez Eibarren bat eta Ermuan beste bat egon behar du."



Lorenza. 86 urte. Jubilatua. "Oin txandaka hasteko asmuakin? Guk Ermuko barri ezebe ez dakigu ta! Guztiz kontra nao ideia horrekin."



Ignacio. 22 urte. "El Correo"-n lanean. "Ni Ermukoa izanik oso gaizki iruditzen zait, kotxerik ez daukatenez problema latza izan daiteke; ea Udaltzaingoa zerbitzuetan laguntzen duan!"



Gerardo eta Martin. 60 urte. Jubilatua. "Gaizki ikusten dugu ideia berri hau, farmaziaren bat beti egon behar da zabalik, bai egunez eta bai gauez."

AGENDA: 1991 eko MARTXOARAKO

KIROLA
K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolatuturik.
Mendi irteera
- 03-02an: Lau hiriburuetak ibilaldien diapositibak eskeiniko dira arratsaldean, eta afari bat egongo da gauez Joxe Queridoren omenez.
- 03-09an: Magdalena mendikateen (Burgos) 1. etapa: Mercadillo-Villabasil.
SKI: Asteburuetan FORMIGALera irteerak. Argibide gehiago K. Deportiboko Ski Taldean. Arratsaldeko 7retatik aurrera.
- **Fondoko eskiko ikastaroa:**
Tokia: Somport
Data: martxoaren 9-10
Prezioa: 5.500 pta., barne bidaia, pensio erdia, eskiatzeko ekipa osoa eta ikastaroa sartzen delarik.
HAURENTZAKO MENDI-IRTEERAK: Herriko haur gutzientzat. Izen-ematea: Ikastetxeetan.
POLIKIROLDEGAN
IGERI-IKASTAROK MARTXOAN
Lau egunetan
10'00-11'00: Helduak Hasiera
15'00-16'00: Helduak Hasiera
17'30-18'30: 4-6 Urte/Hasiera
17'30-18'30: 6-9 Urte/Hasiera

20'30-21'30: Helduak/Hobekuntza
MANTENIMENDU GIMNASIA: Egunero/Ordu desberdinetan.
AEROBIC: Astearte-Ostegun / 19'30-20'20/20'30-21'20
GIM-JAZZ: Astelehena/Asteazken/20'10-21'00
Oharra: Goian aipaturiko ekintzetan parte hartu ahal izateko hileroko-kuota: Abonatuak: 1.825.- Pzta/Bestak: 2.100.- Pzta.
KARATE-TXIKIAK: Astelehena-Asteazken-Ostiral: 18'30-19'20.
Astearte-Ostegun: 18'00-19'00.
KARATE-NAGUSIAK: Astelehena-Asteazken-Ostiral: 19'20-20'10.
JUDO-TXIKIAK: Astelehena-Ostiral: 17'30-18'30.
JUDO-NAGUSIAK: Astelena-Ostiral: 16'30-17'30.
Oharra: Azken ikastaro hauetako hileroko-kuota: 2.300 Pzta txikiak eta 3.275.- Pzta nagusiak. 01-17an: Udaletxeko Kultura Aretoa. Sari-Banaketa.
ZINEA: Unibertsitate Laboraleko EGO-IBAR Taldeak antolaturik Zine Emanaldiak, asteartean. Saio bi: 5'30etan eta 21'00etan.
03.5an: "Hechizo de luna" Norman Jevison.
03.12an: "Un lugar llamado Milagro" Robert Redford.
03.19an: "Muerte en invierno" Arthur Penn.
KONTSUMITZAILE BULEGOA
- Martxoaren hasiera: Autoen konponketarako tailerrak: autoak bide erdian uzten bazaitu zer egin jakiteko ideia basikoak. Iraupena astebeteko eta ordutegia arratsaldetan. Informa gehiago

Merkatu Plazako bulegoetan.
- Komik lehiaketa: Martxoan hasi eta Apirilaren 5ean bukatuko da komikiak bidaltzeko epea. Edozeinek har dezake parte. Honi buruzko informazio gehiago ikastetxe eta Udaletxean banatuko da.
MUSIKA ETA KULTURA
- Martxoak 19-28ra: "Eibarko artisten elkarteak antolatutako erakusketa Udaletxean.
- Martxoak 3: Eibarko Banda Municipalaren kontzertua Kultur Aretoa.
Martxoak 24: Kalejira eta kontzertua.
Martxoak 3,10 eta 24: Txistularien kontzertua.
"GAZTETAN" PROGRAMA
Eibarren euskaraz ikasketak burutzen diharduten 14-17 urte bitarteko gazteentzat honako ateraldi hauek antolatuta dira:
03.03ean: ARTIKUNTZA. Babesturik dagoen naturaren erreserba hau ezagutzeko egun eserako ateraldia.
03.10an: SANTURTZI. Bilbotik Santurtzira bidaia itsasontziz egongo da, Santurtzin "Pitita"-ko irriakin kontaktatu ere.
03.17an: ORIOTIK-DONOSTIA-ra mendiz egiteko ibaldi aparta.
03.24an: Trenean Zarautzeraino joan eta handik txirringaz Getariara.
* Famili eta Gizarte-Heziketarako zentruak antolatuta; makrame kurtsiloa:
Hasiera: Martxoak 4. Eguna: Astelehena eta Asteazkenetan. Ordutegia: gaueko 7etatik 9etara. Iraupena: 20 ordu.

NORK - ZER

Koordinatzaileak:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpuru
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez
Mireia Ugarteburu
Argazkilaria:
Jose Valderrey.
Mireia Ugarteburu
Literatura:
Ane Sarasketa
Maketazioa:
Jose Valderrey.
Komikia / Murrakia:
Ander Gisasola.
Inprimaketa:
Gertu

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Banaketarako erizpideak: 15urteko gorako euskaldunen batek, gutxienez, daukaten familietara. Jakina, oraindik ere, era honetan ale bi banatu ditugu bakarrik. Beraz, eroldaren akatsen bat dela edo geuk egindakoa, gerta liteke ez jasotzea. Baina kontuz gero buzoietako harrapariekin!
Dena den, eta 21.alean esan bezala halakorik edo bestelakorik gertatzen denean dei 118064 telefonora.



Garagardotegia
BURGUER
Gosareak

Goizeko 9etatik aurrera zabalik

EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan)

EIBAR



RIBES
EXPRES. S.A.

GARRAIO
URGENTEA

Tel: 700516
112238

—EIBAR—

AZKENA
TABERNA

Tiburcio Anitua, 5 (Amaria) Tel: 117067